



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainak 14

Vitoria-Gasteiz, 14 de junio de 2022

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

JAURLARITZA SEXU ETA UGALKETA ESKUBIDEEN LEGE PROPOSAMENAREN AURKA DAGO, ESKUBIDE HORIEK DAGOENEKO BERMATUTA DAUDELAKO

- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak eta Jaurlaritzaren beste plan batzuek eskubide horiek eta sexu eta ugalketa osasuna bermatzeko beste jarduera batzuk egikaritzea aurreikusten dutela adierazten du**

Eusko Jaurlaritzaren ustez, indarrean dauden lege eta plan multzo batek bermatzen ditu Euskadin sexu eta ugalketa eskubideak, eta, beraz, Elkarrekin Podemos-IUK gai horri buruz egindako lege proposamena aintzat hartzearen aurka dago.

Gaur Gasteizen egin duen asteroko bileran, Gobernu Kontseiluak adierazi du ez dagoela ados Euskadiko Sexu eta Ugalketa Eskubideen lege proposamenarekin, jadanik eskubide horiek legerian eta gobernu planetan deskribatuta eta bermatuta baitaude. Arau iturri nagusia martxoaren 3ko 1/2002 Legea da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duena.

Aipatu lege horrek sexu eta ugalketa eskubideak aitortzen ditu, prebentzio eta laguntza neurrien bidez, eta honako helburu hauekin: sexu eta ugalketa osasuna ziurtatzea, sexu eta ugalketa osasuneko zerbitzuetarako sarbidea erraztea, plangintza sexuala erraztea eta planifikatu gabeko haurdunaldiak saihestea, eta onartuta dauden lagundutako giza ugalketako prestazioak bermatzea. Arauak, halaber, emakumeek erditzean eta edoskitzean autonomia izatea sustatzen du, bai eta emakumeak ahalduntzea kontrazepzioa eta sexu eta ugalketa osasunarekin lotutako beste alderdi batzuei buruzko erabakiak hartzerakoan.

Sexu eta ugalketa osasunaren eremuan emakumeen kontrako indarkeria motak ere jasotzen ditu lege horrek. Hala, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat jotzen ditu, besteak beste, indarkeria obstetrikoa, sexu eta ugalketa eskubideen urraketa, bai eta emakumeen eta nesken duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kaltetu dezakeen beste edozein indarkeria mota ere. Gainera, generoaren eta giza eskubideen ikuspegia bermatzen du, beti ere berdintasunaren alde.

Indarrean dagoen legedia alde batera utzita, Osasun Sailak arreta pertsonala bermatzen du adinekoei, haurrei, nerabeei, desgaitasunen bat duten pertsoneri, LGTBIQ+ pertsoneri, gutxiengoei, migratzaileei eta askatasunik gabeko pertsoneri babes espezifikoa emateko. Halaber, sexu osasunerako informazio eta hezkuntza programak bultzatzen ditu, genero berdintasunean eta sexu aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta.

Bestalde, Hezkuntza Sailak, Hezkidetzaren Planean, sexu hezkuntza osasunaren eta garapen pertsonalaren ikuspegitik jorratzen du hezkuntza eremuko estamentu guztietan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GOBERNU KONTSEILUAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN LAN EGITEN DUTEN PERTSONEN PRESTAKUNTZA FINANTZATZEKO PARTIDAK ONARTU DITU

- **Baimena ematen du IVAPen eta Osakidetzaren, Arkauteko Akademiaren, Hezkuntzaren eta EHUren artean prestakuntza hitzarmenak sinatzeko**

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) hitzarmenak berritzeko, Osakidetzako, Hezkuntzako, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako (Arkaute) langile publikoak prestatzeko. Helburua da lau erakunde horietan lan egiten duten langile publikoak prestatzeko planak eta programak berritzea, bai eta horien finantzaketa arautzea ere.

IVAPen eta Osakidetzaren arteko hitzarmenak arautzen du 2022an langileak prestatzeko egiten diren plan edo programen bidez enplegurako prestakuntzaren arloan finantzatzea. Horretarako, zuzkidura ekonomikoak gehienez 452.061 euroko zenbatekoa izango du.

Hezkuntza Sailarekin sinatutako hitzarmena irakasleen prestaketari zuzenduta dago eta gehienez 441.957 euroko zuzkidura izango du.

Hitzarmena Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU), Administrazio eta zerbitzuetako langileak prestatzeko da, eta 37.890 euroko gehieneko zuzkidura izango du.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin (Arkaute) sinatutako hitzarmenak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoak 2022ko ekitaldian enplegatu publikoentzat egindako plan edo programen finantzaketa arautzen du, enplegurako prestakuntzaren arloan, prestakuntza hori ikastegiaren eskumenekoa denean. Horretarako 193.661 euro bideratuko da.

Prestakuntza ekintzak

Berritutako lau hitzarmenak 2022ko abenduaren 31ra arte egongo dira indarrean, eta honako ekintza hauek ere barne hartzen dituzte:

- Prestakuntza edukiak diseinatzea eta/edo lantzea.
- Ikaskuntza sareak ezartzea, aldi baterakoak edo iraunkorrak.
- Irakaskuntza materiala diseinatzea, lantzea eta argitaratzea, prestakuntzan erabilitako

edozein euskarritan.

-Aprobetxamenduaren, transferentziaren edo inpaktuaren ebaluazioarekin lotutako

azterlanak, erakundeak garatutako prestakuntzari buruzkoak.

Gainera, lau hitzarmenek klausula bat dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza sustatzeko. Horrela, Eusko Jaurlaritzak langile publikoak prestatu nahi ditu berdintasun politikak herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu publikoetan ager daitezen.

IVAP

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) helburuen artean dago Euskadiko administrazio publiko guztietako langileak prestatzea eta euskalduntzea. Zehazki, IVAPeko prestakuntza zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde instituzionalen zerbitzura dauden langileen sarrerako, lanposturako eta lan-ibilbiderako prestakuntza planak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzen ditu.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

21,6 MILIOI BAINO GEHIAGOKO LAGUNTZAK NEKAZARITZAKO, ELIKAGAIGINTZAKO ETA ARRANTZAKO PRODUKTUAK ERALDATU ETA MERKATURATZEKO (LEHIATU BERRIA PROGRAMA 2022)

- Deialdi honetan milioi bat euro bideratuko dira elikagai ekologikoak eraldatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko inbertsioetara
- Azkeneko bost deialdietan programa honen bidez, gutxi gorabehera 55 milioi euro inguruko laguntzak eman dira 275 milioiko inbertsioetarako

Eusko Jaurlaritzak, Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren aginduaren bitartez, 2022. urterako LEHIATU BERRIA programan aurrez ikusten diren laguntzen deialdia onetsi du nekazaritzako produktuen, elikagaien eta arrantzatik eta akuikulturatik eratorritako produktuen eraldaketa eta merkaturatzea finantzatzeko. Horretarako, 21,6 milioi eurotik gorako zuzkidura izango du.

LEHIATU BERRIA programak nekazaritza-, elikagai-, baso-, eta arrantza-industriarako laguntzak jasotzen ditu. Programa elikakatera bideratuta dago, eta sektore guztiak hartzen ditu. Helburua da nekazaritzako produktuak, elikagaiak, baso-produktuak eta arrantza nahiz akuikulturatik eratorritako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioetarako laguntzak ematea.

Programaren deialdiak 2015az gero egiten dira, eta azken lau ekitaldietan 55 milioi euro inguruko laguntzak eman zaizkie 629 eskatzaile onuradunei. Horiei esker, ia 275 milioi euro inbertitu dira.

Ekitaldi honetan, programak 21.638.939 euroko deialdia du; horietatik 15.000.000 zuzenean Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetatik datoz eta gainerakoa LGENFren, nekazaritzarako EURIren (LGENF funtsa indartzeko deialdi honetan gaitu den EBren Susperraldi Tresna) eta arrantzaren sektorerako FEMPren kargura izango da.

Laguntzen helburua da nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantza nahiz akuikulturatik eratorritakoak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak finantzatzea. Zehazki, honako hauetara bideratuko dira:

- Nekazaritzako produktuak eraldatu, merkaturatu edo garatzeko inbertsioak eta baso-produktuak eraldatu eta merkaturatzera bideratutako inbertsioetarako laguntzak.
- Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatu eta merkaturatzeko inbertsioak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagai-industrietan inbertsioak, aurreko ataletan sartzan ez badira.

Modalitatearen arabera, onuradunak pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke: nekazariak edo nekazarien elkarteak, nekazaritzako kooperatibak edo nekazaritzako elikagaien industriak, mikroenpresak, enpresa txikiak eta ertainak. Ezingo dira inola ere onuradun izan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeak.

Laguntza elikagai ekologikoei

Deialdi honetan programak, berriazko laguntza-ildo berri baten bitartez, milioi bat euroko partida erabiliko du elikagai ekologikoen eraldaketan, garapenean eta merkaturatzean inbertsioak egiteko. Horrela, industriak bultzatuta, produktu ekologikoen ekoizpena eta eskaria bultzatu nahi dira, bai eta Euskadin elikagai jasangarriak, osasungarriagoak eta balio erantsi gehiago dutenak sortzeko gaitasuna izatea ere.

Eskaera egiteko epea

Establezimendu eta jarduera bakoitzak eskaera bat egin ahal izango du. Eskaerak egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikora sartuko da. Eskaera, erantzukizunpeko adierazpena, justifikazioak eta gainerako dokumentazioa izapidetzeko zehaztapenak honako helbide elektronikoa honetan daude eskuragarri: https://www.euskadi.eus/ayudas_appa/ -Lehiatu Berria programa 2022 (Erref.: 0034206).

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK 2023KO AURREKONTUAREN GIDALERROAK ONARTU DITU, SUSPERRALDI EKONOMIKOA FINKATZEKO ETA ETORKIZUNEKO ERRONKEI INBERTSIOAREN BIDEZ AURRE EGITEKO

Eusko Jaurlaritzak gaur onartu ditu 2023ko aurrekontuaren diseinua gidatuko duten aurrekontu-gidalerroak, ekonomiaren susperraldia finkatzeko eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko baliagarriak izango direnak. Horrela, sektore publikoak inbertsioaren eta epe luzeko hazkundearen eragile izaten jarraituko du, pertsoneri begira dagoen Euskadi ekologikoagoa eta digitalagoa eraikitzeke, betiere genero-ikuspegiaren zeharkako ardatzarekin.

2023ko aurrekontuek erantzungo diote osasun-pandemiak eragindako krisiaren berreskurapenean sakontzeko helburuari, baita Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioak arintzeko helburuari ere. Eusko Jaurlaritzak aurrekontu horiek planteatuko ditu trakzioko aurrekontu-politika arduratsuari eustearen ikuspegitik.

EUSKADI EKOLOGIKOAGOA

Eusko Jaurlaritzaren Klima Larrialdiko Deklarazioak klima-aldaketa jasotzen du gure bizimoduaren eraldaketa integrala ekarriko duten erronkarik premiazkoen eta konplexuen artean. Euskal gizarteak urratsak egin ditu karbonoan neutroa den ekonomia baterako bidean eta bere gain hartu du klima-aldaketaren ondorioak arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko politiketan duen erantzukizun-kuota, betiere konpromiso sendo eta irmoarekin. Dimentsio anitzeko erronka da.

EUSKADI DIGITALAGOA

Euskadik digitalizazio-maila handia du, eta arlo horretan jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea izango da erronka. Digitalizazioa balioa erantsiko iturria da Euskadiko sektore estrategikoetarako, eta ahalik eta gehien ustiatu beharko da. 2023ko aurrekontuek hiru dimentsio landuko dituzte:

- Funtsezko teknologien ezarpena bizkortzea, hala nola 5G konektagarritasuna, adimen artifiziala, konputazio kuantikoa, interoperabilitate publikoko/pribatuko zerbitzuak, eta hodeian eta zibersegurtasunean oinarritutako zerbitzuak.
- Teknologia digitalen hedapena errazten eta bizkortzen duten bitartekoak eta kanalak edo gaitasunak indartzea.
- Teknologiak funtsezko aplikazio-esparruetan aktibatzea eta bizkor txerta daitezen bultzatzea. Batez ere, zerbitzu publikoak kudeatzea eta herritarrengana hurbiltzea, eta enpresa-sarea digitalizatzea, bereziki enpresa txikiak eta ertainak.

EUSKADI PERTSONEI BEGIRA

Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa da gero eta bidezko, zuzen eta solidarioagoa den gizarterantz aurrera egitea da. Horretarako, barne-produktu gordinaz

haratago begiratzen duen hazkundearen kontzeptuan oinarrituko da, aukeraberdintasuna eta kalitateko enplegua sustatuko du eta ezbeharren aurkako babesa ziurtatuko du.

Gaur onartutako aurrekontu-gidalerroetan jasotako alderdien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: hezkuntza inklusiboaren, bidezkoaren eta kalitatekoaren aldeko apustua; osasuna, betiere politika publiko guztietan osasun-ikuspegia integratzearen bidetik, oinarrizko arreta sustatzearen bidetik eta Osakidetzaaren egiturazko plantilla indartzearen bidetik; enplegua, gizarteratzeko mekanismo nagusia den heinean; gizarte-babesa, desberdintasuna zuzentzeko politikak biltzen dituen heinean; eta berreskuratzeko demografikoko egoerarako aurrerabidea.

TRAKZIOKO AURREKONTU-POLITIKA ARDURATSUA

Inbertsio eta giza garapen jasangarriaren aldeko apustua sinesgarria izango da soilik, baldin eta Eusko Jaurlaritzak aurrekontu-egonkortasunaren alde hartutako konpromiso sendoarekin lotuta badago. Azken ekitaldietan konpromiso hori argi islatu izan da defizita murrizteko egindako akordioetan; izatez, akordio horiei esker, baliabideak inbertsiora eta gizarte-politiketara bideratu ahal izan dira.

2023rako defizit- eta zor-helburuak oraindik adostu ez badira ere, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna gorde beharreko balioak dira, batez ere kontuan hartuta finantza-jasangarritasunaren arauak berriro ere indarrean egongo direla etorkizun hurbilean.

Hazkunde ekonomikoko garaietan, Jaurlaritzak kontu publikoak osasuntsu mantentzen ahalegindu behar du. Helburua da bat-batean eta ezustean gertatzen diren —ikusten ari garen bezalaxe— krisialdietan gizarte-beharrei erantzun ahal izatea, baina digitalizazioaren eta trantsizio energetiko-klimatikoaren erronka handiari aurre egiteko Euskadik behar duen inbertsioaren aldeko apustuari uko egin gabe.

Ez da komeni ekonomiaren hazkundearekin lotzen diren eta egoeraren araberakoak diren diru-sarrera publikoen gehikuntzak eta zorpetze potentziala erabiltzea egiturazko gastu publiko korrontea handitzeko. Hausnarketa hori are agerikoagoa da, gaur egungo inflazio-presio garbiko unean, diru-sarrera publikoak ez baitira soilik ekonomiaren benetako hazkundeaz elikatzen, baita prezioen eta errenten hazkunde nominalaz ere.

Aurrekontu publikoaren kudeaketa arduratsuak urrezko arau argi bat ezartzen digu, gastu publiko korronteen gehikuntzak lotuta egotea ekonomiaren hazkunde potentzialarekin eta/edo diru-sarrera publikoen egiturazko hazkundearekin.

Eusko Jaurlaritzak gastuaren arloko programak, politikak eta planak planifikatzeko eta ebaluatzeko sistemarako oinarriak finkatuko ditu, baliabideak egoki esleitzeko argudio objektiboak izan ditzen.

EGOERA EKONOMIKOA

COVID-19ak sortutako pandemiaren inpaktu handiaren ondoren, 2021. urtea eta 2022. urtearen hasiera munduko ekonomia suspertzeko garaia izan da. Ekonomien aurrerabideak jarraipena izan du aurtengo lehen hiletan, nahiz eta Errusiak Ukraina inbaditzeak agertokia aldatu duen.

Ziurgabetasun handiko testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia % 5,6 hazi zen 2021ean, eta dinamismo horri eutsi dio 2022ko lehen hiruhilekoan, % 5,7ko igoera zenbatetsi baita urte artekoan. Gainera, bigarren hiruhilekorako eskura dagoen koiuntura-informazioak ez digu pentsarazten hazkunde-erritmoa nabarmen moteltzen ari denik; hortaz, pentsa dezakegu emaitzazko tasa handia izango dela, egoera makroekonomikoan aurreikusten denarekin bat.

Jarduera ekonomikoaren bilakaera ona bereziki hauteman daiteke lan-merkatuan. 2022ko lehen hiruhilekoan langabezia-tasa % 9,1era murriztu da, aurreko urtekoa baino bi puntu txikiagoa.

Koiunturazko egoera horretatik abiatuta, eta testuinguruko hipotesiak kontuan izanik, agertoki makroekonomikoak pentsarazten digu euskal ekonomiaren hazkundera moteldu egingo dela 2021eko emaitza bikainaren aldean.

Oraingoz, taula makroekonomikoa honela dago:

	2021	2022	2023
Barne Produktu Gordina	5,6	4,5	4,1
Azken kontsumoa	4,8	4,4	3,7
Etxeko kontsumoa	5,3	4,8	4,0
Administrazio Publikoen kontsumoa	3,0	3,2	2,6
Kapital Eraketa Gordina	6,3	5,0	4,3
Barne-eskaria	5,1	4,6	3,8
Kanpo-eskariko ekarpena	0,2	-0,3	0,2
Barne Produktu Gordin nominala	8,1	8,8	6,5
Barne Produktu Gordin deflaktorea	2,3	4,2	2,3
Enplegua (lanpostuak)	5,5	2,8	1,8
Landunak (biztanleriaren jardueraren arabera)	1,6	1,8	0,8
Langabezia-tasa	10,0	9,5	9,1

Agertoki hori ziurgabetasun handiko testuinguru batean egin da. Izan ere, 2022ko bigarren hiruhilekoko behin betiko datu makroekonomikoak eskutan izanik eta adierazle sozioekonomiko nagusiak eguneratu ostean, berrikusiko da

agertoki makroekonomikoa, eta hori kontuan hartuko da aurrekontuak behin betiko egiterakoan.

Eusko Jaurlaritzak egokitzat jo du Errusiari ezarritako zigor ekonomikoen ondorioei denbora ematea —zigor ekonomiko horien artean daude petrolio gordinaren erosketarekin lotzen dena eta Europako eta estatuko erakundeek ezarritako neurriak—. Ziurtasun-maila handiagoko agertokia behar da aurrekontuak datu ziurragoekin egin daitezen. Berrikuspen hori 2022ko hirugarren hiruhilekoan egingo da.

AURREKONTU-TRAMITAZIOA

Hortik aurrera, hasiko da 2023ko aurrekontua prestatzen eta tramitatzen, urriaren 25eko Gobernu Kontseiluan onar dadin eta Eusko Legebiltzarrean urriaren 28an entrega dadin. Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak aurrekontu-gidalerroak ekainean helaraziko dizkie Eusko Legebiltzarreko talde politikoei.

Ekonomia eta Ogasuna

GOBERNU KONTSEILUAK IÑAKI BARREDO ARDANZA IZENDATU DU EKONOMIAKO ETA EUROPAKO FUNTSETAKO SAILBURUORDE, ETA JUAN ALBERDI ALBERDI IZENDATU DU KOHESIO POLITIKAREN ETA EUROPAKO FUNTSEN ZUZENDARI

Gobernu Kontseiluak gaur asteartea Iñaki Barredo Ardanza izendatu du Ekonomiko eta Europako Funtsetako sailburuorde, eta Juan Alberdi Alberdi izendatu du Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen zuzendari.

Orain arte Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen zuzendari izan den Iñaki Barredok honako funtzio hauek, besteak beste, dituen Sailburuordetza hartu du bere gain: Eusko Jaurlaritzaren epe ertaineko ekonomia-politikarako jarraibideak eta orientabideak prestatzea; euskal sektore publikoaren, administrazio publikoen eta enpresa sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren jarraipena eta analisia egitea; euskal ekonomiari buruzko azterlanak, txostenak eta argitalpenak egitea; eta Europako Funtsek bereganatzea eta kudeatzea.

Izendapen horrekin, Iñaki Barredo Ardanzak beste etapa bati emango dio hasiera Eusko Jaurlaritzaren barruan, joan den urteko martxoan Eusko Jaurlaritzan sartu zenetik. Barredo ekonomista da eta espezializatuta dago berrikuntzaren, garapen ekonomiko industrialaren eta ingurumenaren arloko politika publikoen definizioan, diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan.

Bere ibilbide profesionaleko lorpen garrantzitsuenen artean hauek nabarmen daitezke: zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloko euskal politikari egindako ekarpena; Euskadiko ingurumenaren arloko esparru-planen prestaketan eta jarraipenean emandako laguntza; eta hainbat hiritako plan estrategikoen prestaketan emandako laguntza. Era berean, ekonomia-sustapenerako eta enpresa-berrikuntzarako programa publikoak aztertzeke eta ebaluatzeke irizpen ugari eman ditu zenbait erakunde publikorentzat.

EHUko Ekonomiko lizentziaduna da, Ekonomia Kuantitatiboa espezialitatean; era berean, Ekonomia Publikoan diplomaduna da eta Pennsylvaniako Unibertsitatean masterra du.

Bestalde, Juan Alberdi Alberdik beste etapa profesional bati ekingo dio sektore publikoan, orain arteko lan-bizitza bankuko profesional gisa garatu ondoren. Izatez, zuzendari izendatu arte, 2012tik Caixank SAko bulegoko zuzendari gisa jardun du (premier bankuko kudeatzaile), beste banku-erakunde batzuetatik pasa ostean.

Juan Alberdi EHUko Enpresa eta Ekonomia Zientzietako lizentziaduna da (Eskualdeko eta Hiriko Ekonomiko espezialitatea) eta zenbait graduondoko ikasketa eta espezializazio-ikastaro egin ditu; horrez gain, eskarmentu handia

du plangintza eta akonpainamendu ekonomiko-finantzarioko prozesuetan eta taldeen kudeaketan.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 62,5 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASLEEI ZUZENDURIKO BEKETARAKO

- **Baldintzak betetzen dituen familia orok laguntza jasoko duela bermatzen du Hezkuntza Sailak**
- **Eskabideak aurkezteko epea: uztailaren 18tik irailaren 30era**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2022-2023 ikasturtean unibertsitatez kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeko beka eta dirulaguntzak deitzen dituen Agindua. Deialdiak 62,5 milioi euroko zenbatekoa du orotara. Kopuru horrek 2,5 milioi euroko igoera esan nahi du aurreko beka deialdiarekin alderatuta.

Beka osagaiak

2022-2023 ikasturterako deialdi honek, honako ikasketa maila hauetarako beka eta dirulaguntzak hartzen ditu bere baitan:

- Batetik, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Musikako eta Dantzako oinarrizko irakaskuntzak burutzen ari diren ikasleak eskolatzeko beka eta laguntzak.

Aipaturiko maila horietako ikasleei zuzenduriko bekek honako osagai hauetako bat edo zenbait har ditzakete beren baitan: kuota osagaia; ikasmaterialetarako osagaia; eta jantokiaren osagaia.

- Bestetik, derrigorrezko hezkuntzaren ondoren egiten diren unibertsitatez kanpoko irakaskuntzatarako ere deitzen dira beka eta laguntzak. Hauen artean daude: Batxilergoa; Lanbide Heziketako zikloak; Arte plastikoak eta diseinua (Heziketa-zikloak); Musikako eta Dantzako irakaskuntza profesionalak; Kirol-irakaskuntzak; Hezkuntza administrazioaren titulartasuneko eskola ofizialetan egiten diren hizkuntza-irakaskuntzak.

Ikasketa maila hauetako ikasleek eskatu ahal izango dituzten bekek osagai hauek dituzte: Eskatzailearen errentari lotutako zenbateko finkoko osagaia; Eskatzaileak ikasturtean duen bizilekuari lotutako zenbateko finkoko osagaia; Oinarrizko bekaren osagaia; Errendimendu akademikoan izandako bikaintasunari lotutako zenbateko finkoko osagaia; eta Zenbateko osagarriaren osagaia.

Hezkuntza Sailak bermatzen du baldintzak betetzen dituen familia orok jasoko duela laguntza ekonomikoa. Horretarako, deialdi honen diru-kopurua (62,5 milioi eurokoa) handitu egin daiteke, beharrezko gertatuko balitz. Era honetan, ikasle guztiek hezkuntzarako eskubidean aukera berberak izatea eta familiaren egoera ekonomikoa zailtasun gehigarri bat ez izatea ere bermatzen da.

185.326 laguntza

2021-2022 ikasturte honetan, 114.842 ikaslek jaso zituzten unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-mailetarako beka Euskadin, eta 185.326 laguntza eman ziren guztira (beka osagaiak aintzat hartuta).

Ikasturte honetan (2020-2021 beka deialdiarekin) onuradun izan diren ikasleei dagoeneko betetako eskaera-inprimakia emango zaie. Eskabideak aurkezteko epea uztailearen 18tik irailaren 30era bitartean izango da zabalik.

Hezkuntza

15,6 MILLIOI EURO ETXEBARRIN BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTU BERRIA ERAIKITZEKO

- **Eraikin berriak DBHko 5 lerro eta Batxilergoko 3 izango ditu, eta Etxebarri BHIren egungo egoitzaren alboan eraikiko da**
- **Izango duen isolamendu termikoari eta energia berriztagarrien erabilerari esker, eraikin berriak A kalifikazio energetikoa izango du**

Gobernu Kontseiluak 15.662.775,27 euroko gastua baimendu du gaurko bileran, Hezkuntza sailburuak proposatuta. Kopuru hau Etxebarrin (Bizkaia) Etxebarri Bigarren Hezkuntzako Institutuaren (IES Etxebarri BHI) egungo eraikina eraitsi eta berria eraikitzeo proiektura bideratuko da.

Eraikin berriak DBH-ko 5 lerro (20 gela) eta Batxilergoko 3 (6 gela) hartuko ditu, eta "L" forman eraikiko da, institutuaren egungo eraikinaren alboan. Behe solairua eta horren gaineko beste hiru solairu izango ditu. Eraikin berriaren ondoan, bolumen berezi batean, gimnasio berria eraikiko da, aldagela eta komunekin. Bi bolumen hauek 6.477,41 metro koadroko azalera eraikia izango dute guztira.

Bi fasetan eraikitzea

Kokapen horri esker, obra bi fasetan egin ahal izango da. Lehenengo fasean, institutu berria eraikitzen den bitartean egungo eraikina erabiltzen jarraituko du ikastetxeak. Bigarren fasean, eraikin berria bukatu eta hara lekualdatu ondoren, lehenengo eraikina eraitsi egingo da, eta gimnasio berria eta aldagelak eraikiko dira hura zegoen lekuan. Bigarren fase horretan, jolasetarako kanpoko espazioa ere antolatuko da. Obrek dirauten bitartean, ikasleek egungo kirol-pista estalia erabili ahal izango dute jolas-patio gisa.

Bigarren fasea amaiturik, jolaserako kanpoko espazio zabal bat eratuko da, orientazio egokiarekin (hego-ekialdera) eta eraikin berriaren beheko solairuak izango duen kota berean, oztopo arkitektonikorik gabe. Gaur egungo kirol-pista estaliak zutik jarraituko du bere lekuan, eta pasabide baten bidez eraikin berriarekin lotuko da bigarren solairuan. Beraz, eraikin barnealdeko igogailua erabiliz, kirol-pista estalirako irisgarritasuna ere ez da arazo izango.

Energia-eraginkortasuna

Institutuko instalazio berrietarako hartu diren eraikuntza-soluzioek eta jatorri berriztagarriko energia erabiltzeak (hala nola aerotermia), A kalifikazio energetikoa emango diote Etxebarri BHIko eraikin berriari.

Ikastetxe berriaren energia-eraginkortasunari laguntzen dioten elementuen artean, berokuntza-sistema dago. Berokuntza-sistema tenperatura baxuko igorleen bidez egingo da, fatxaden orientazioaren arabera, eta gas-

errekuntzarik gabe. Institutu osorako beroa sortzeko, bero-ponpa aerotermikoak instalatuko dira eraikinaren teilatuan.

Teilatuan bertan, eta hegoaldera begira, energia elektrikoa sortzeko eta autokontsumorako plaka fotovoltaikoak jarriko dira, banaketa-saretik deskonektatuta. Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak are gehiago murrizten du eraikinaren energia-eskaria, eta, beraz, energia-kontsumo ia nulua izango duen eraikina izango dela esan daiteke.

Gorago azaldutako guztiari, fatxadarako hartu diren isolamendu termikoko soluzioak gehitu behar zaizkio: fatxada aireztatua, artile mineral hidrofugozko isolamenduarekin. Ondorioz, eraginkortasun termiko handiko fatxada lortzen da. Bestalde, hegoaldera begira dauden espazioak eguzkitik babestuko dira aluminiozko xafla horizontalekin. Azkenik, proiektu honetarako aukeratu den lehorreko eraikuntza-sistemak obra eraginkortasun handiagoz eta azkarrago burutzea ahalbidetzen du.

Proiektuak 24 hilabeteko exekuzio epea izango du, obrak hasten diren unetik zenbatzen hasita. Etxebarri BHIren eraikin berriarentzat gastua Gobernu Kontseiluan onartu ondoren Hezkuntza Sailak lizitazioari ekingo dio eta obra horiek datorren urte hasieran esleitzea aurreikusten du.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 10,5 MILIOI EURO BIDERATU DITU ITUNPEKO IKASTETXEETAN ENPLEGUA MANTENTZEKO ETA PLANTILLAK GAZTETZEKO

- **Deialdiak dirulaguntzak jasotzen ditu itunpeko ikastetxeentzat, beren irakasleak birkolokatu ditzaten, ikasgelak murriztu daitezkeela aurreikusita, edo irakasle-plantillak gaztetu ditzaten errelebo-kontratuen bidez**

Hezkuntza sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak Agindu bat onartu du gaurko bileran. Agindu horren bidez, itunpeko ikastetxeei laguntzak emateko deialdia egiten da, enplegua mantentzeko eta irakasle-plantillak gaztetzeko akordioen esparruan, datozen urteetarako aurreikusten den demografia-beherakadaren aurrean. Deialdi honek 10.533.774 euroko diru-kopurua du dirulaguntza horietarako.

2020ko urtarrilean eta otsailean, EAEko Administrazioak akordio bana sinatu zuen gizarte ekimeneko itunpeko ikastetxeetako eta ikastoletako patronalekin eta sindikatuekin. Akordio horien ardatz nagusiak, honako hauek dira:

- Batetik, irakasleen enpleguari eustea: ikasgela-kopurua murriztearen ondorioz lanpostua gal dezaketen irakasleen birkokapena bermatzea.
- Bestetik, irakasleen belaunaldi-erreleboa erraztea, irakasle zaharrenen erretiroa eta irakasle gazteenak lanbidera sartzea erraztuz: erretiro partziala eta errelebo-kontratua, Administrazioaren laguntzarekin.

Beraz, laguntza hauen onuradun izan daitezke EAEko itunpeko ikastetxe pribatuak –gizarte ekimenekoak nahiz ikastolak-, gorago aipaturiko akordioen sinatzaileak.

Deialdi honetan sartzeko, diruz lagun daitezkeen jardueren eraginpeko langileak Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko edo Lanbide Heziketako kontratu mugagabea duten irakasleak izango dira, Euskadiko itunpeko irakaskuntzan.

Hezkuntza

200.000 EURO KONGRESUAK ETA ZIENTZIA BILERAK EGITEKO LAGUNTZATAN

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du ikerketa zientifikoaren arloko kongresu eta bilerak antolatzeko dirulaguntzak ematen dituen agindua. Kongresu eta bilera horiek, izan aurrez aurrekoak zein birtualak, 2022ko bigarren seihilekoan burutu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoan. Deialdi honek 200.000 euroko diru-kopurua du. Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente egiaztatuak, haien kategoria edozein dela ere.

Diru-laguntza hauek, honako gastu arrunt hauek ordaintzeko erabili beharko dituzte, besteak beste: kongresu edo bileraren antolamendua eta zabalkunde gastuak, hizlari gonbidatuen parte-hartze gastuak, ikertzaile gazteen partaidetza errazteko gastuak edo, kongresuen kasuan, ekarpen zientifikorik onenari eman ohi zaion saria. Jardunaldiok 2022ko uztailaren 1a eta abenduaren 31 artean burutu beharko dira.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira, bereziki prestakuntzakoak diren ikastaroak eta jarduerak, hala nola irakaskuntzako eta ikaskuntzako trebakuntzarako prestakuntza-jardunaldiak, tailerrak edo mintegiak, besteak beste.

Laguntzen deialdi honek aukera ematen du kongresu eta bilera zientifikoak modu birtualean edo on-line finantzatzeko.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAK LUZATU EGIN DU UPV/EHU-REKIN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ARKITEKTURAREN ETA HIRIGINTZAREN AZTERKETA, SUSTAPENA ETA ZABALKUNDEA BULTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio 2018ko ekainaren 18an Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak sinatutako lankidetzaren hitzarmena beste 4 urtez (2026ko ekainaren 18ra arte) luzatzeari, Euskal Autonomia Erkidegoan arkitekturaren eta hirigintzaren azterketa, sustapena eta hedapena bultzatzeko, baita eginkizun horri lotutako jardura zientifikoa bultzatzeko ere. Arriola sailburuak hitzarmena luzatzeko beharra adierazi du, bertan jasotako helburu guztiak betetzeko. Helburu horiek ikerketa zientifikoa eta teknologikoa eta berrikuntza sustatzen dituzte arkitekturaren eta etxebizitzaren diseinuan; horretarako, eraikuntzan, jasangarritasunari, energia-eraginkortasunari eta eraikuntzaren kalitateari erreparatuta.

Hitzarmen horren bidez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak konpromisoa hartzen du UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoak egindako jarduketak sustatzeko, bere zereginetatik lortzen diren eraikuntza-sistema eta -material berriak txertatzeko aukera aztertzeke, eta Unibertsitateak esparru horretan egiten dituen sustapen- eta hedapen-ekintzak bultzatzeko eta aktiboki parte hartzeko.

UPV/EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoak, bestalde, konpromisoa hartzen du bi erakundearen artean urtero adosten diren jarduketak, proiektuak eta lankidetzak garatzeko —egikaritze-aldia amaitzean memoria bat aurkeztuko da—, eta ingurumena errespetatzen duten eta Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoarekin bat datozen eraikuntza-sistema eta -material berriei buruzko azterketak, saiakuntzak eta ikerketak sustatzeko. Unibertsitateak, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko arkitektura eta hirigintza sustatu eta zabaldu behar ditu, jardunaldiak, erakusketak, hitzaldiak eta kongresuak antolatuz.

Lankidetzaren horren ondorioz, Etxebizitza Publikoaren Kudeaketa eta Diseinua Masterra sortu zen 2020an, babes publikoko etxebizitzaren erronka berriei erantzun dieten kualifikazio handiko teknikariak prestatzeko helburuarekin: gizarte-premiak, politikak eta araudia ezagutzea, arkitektura-soluzio berriak diseinatzea eta gauzatzea, edo lehendik daudenetan esku hartzea.

Etxebizitza Publikoaren kudeaketan eta diseinuan esperientzia duten edo titulatu berri diren (Zuzenbidea, Ekonomia Zientziak, Politika Zientziak, Arkitektura, Arkitektura Teknikoa, Ingeniaritza...) profesionalei zuzendutako graduondoko honek bi aditu-ikastaro ditu, bakoitza bere aldetik egin daitekeenak: Etxebizitza Publikoaren Politika eta Kudeaketan Aditu Ikastaroa

eta Etxebizitza Publikoaren Diseinu Aurreratuan Aditu Ikastaroa.
400 orduko irakaskuntza osatzen duten bi aditu-tituluak lortu ondoren, masterra lor daiteke Master Amaierako Lana egin eta gero (200 orduko dedikazioa eskatzen du). Era berean, praktikak egin ahal izango dira enpresen eskaintzaren arabera. Graduondoko horrek saio telematikoak (% 25), eta Bilbon (% 65), EHAE Oren egoitzan, eta Donostian (% 10), EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoan, egindako beste saio presentzialak uztartzen ditu.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 350.000 EUROKO ZUZKIDURA ONARTU DU EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREKO LIBURUTEGIETAN TEKNOLOGIA BERRIAK EZARTZEKO

Gobernu Kontseiluak gaur egindako bileran onartu du Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko eta/edo garatzeko dirulaguntzen deialdia. Guztira, Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 350.000 euro bideratuko ditu liburutegi publikoen titular diren udalen, toki-erakunde eskudunen eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal-liburutegi publikoen arloan eginkizunak esleituta dituzten udal-erakundeen artean banatzeko. Deialdi honek liburutegien azpiegitura indartzea du helburu, haien eskaintza digitala aberastuz.

Erakunde eskatzaileek hardware-ak edo euskarri fisikoak, softwareak edo informatika-sistemen euskarri logikoak eta telekomunikazio-sareak eskuratu eta/edo instalatu ahal izango dituzte.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian gaur onartutako agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iazko deialdian, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 96 udaletan teknologia berriak ezartzeko dirulaguntzak eman zituen. Erakunde horiek 200 eta 36.000 euro arteko dirulaguntzak jaso zituzten. Zenbatekoak esleitzeko, erakunde onuradunaren biztanleria hartzen da kontuan.

Kultura eta Hizkuntza Politika

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 700.000 EURO
BIDERATUKO DITU KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIEN
BERRIKUNTZARAKO KSI BERRITZAILE+ PROGRAMARAKO
DIRULAGUNTZETARA**

Eusko Jaurlaritzak gaur onartu du Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien (KSI) sektorean 2022-2023 aldirako potentzial berritzaile handia duten proiektuak garatzen dituzten enpresentzako diru-laguntzetarako deialdia egiten duen agindua. Honako sektore hauek hartzen dira KSItzat: Arte eszenikoak, Ikusizko arteak, Ikusentzunezkoak, Argitalpenak eta medio inprimatuak, Musika, Kultura ondarea, Arkitektura, Artisautza, Eduki digitalak, Diseinua, Sormen-gastronomia, Hizkuntzaren industriak, Moda, Publizitatea eta marketina, eta Bideojokoak; baita KSI sektorearen zehar-erakundeak ere, hau da, kultura- eta sormen-bitartekaritza nahiz aholkularitzako enpresak.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 700.000 euroko partida bideratuko du 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko azaroaren 30era bitartean garatzen diren proiektuak diruz laguntzera. KSIn sektoreko proiektu hauek lagunduko dira diruz:

- Produktuaren/zerbitzuaren, prozesuaren edo negozio-ereduaren berrikuntza-proiektuak, diferentziazioa eta balio instrumentala, intrintsekoa edo soziala dakartenak.
- Ernalketa gurutzatua sustatzen duten I+G+b proiektuak.
- KSlek 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana, Euskadi 2030-ren hiru trantsizioetako batekin zerikusia duten I+G+b proiektuetan parte hartzea sustatzen duten proiektuak.
- Teknologia nahiz irtenbide berritzaileak erabiltzen dituzten proiektuak.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ekainaren 28tik aurrera.

KSI sektorean berrikuntza sustatzeari buruzko gogoeta-prozesu baten ondoren, deialdi berri hau sortu da gogoeta horren ondorio nagusia babesteko, hau da, KSIn berrikuntzaren eragile eta sustatzaile direla. Horrela, Euskadiko KSIn sektorean potentzial berritzaile handia duten proiektuak diruz lagunduko dira, sektorearen lehiakortasuna hobetzen eta/edo nazioarteko posizionamenduan eragina dutenak, transferentzia-prozesuak garatzen eta sinergiak eta aukera-espazio berriak sortzen lagunduz.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO SE OPONE A LA PROPOSICIÓN DE LEY DE DERECHOS SEXUALES Y REPRODUCTIVOS PORQUE ESOS DERECHOS YA ESTÁN GARANTIZADOS

- **Señala que la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y otros planes del Gobierno ya contemplan el ejercicio de esos derechos y otras actuaciones para asegurar la salud sexual y reproductiva**

El Gobierno Vasco considera que los derechos sexuales y reproductivos ya están garantizados en Euskadi por un conjunto de leyes y planes en vigor, por lo que se opone a la toma en consideración de la proposición de ley planteada por Elkarrekin Podemos-IU sobre esta cuestión.

En su reunión semanal celebrada hoy en Vitoria-Gasteiz, el Consejo de Gobierno ha manifestado su criterio desfavorable sobre la proposición de ley de Derechos Sexuales y Reproductivos de Euskadi, ya que esos derechos ya vienen descritos y garantizados en la legislación y en los planes de gobierno. La fuente normativa principal es la Ley 1/2002, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Esta ley contempla el ejercicio de los derechos sexuales y reproductivos a través de medidas preventivas y asistenciales dirigidas a asegurar la salud sexual y reproductiva, a favorecer el acceso a servicios de salud sexual y reproductiva, a facilitar la planificación sexual y evitar embarazos no planificados, y a garantizar las prestaciones de reproducción humana asistida admitidas. La norma también promueve la autonomía de las mujeres en el parto y la lactancia, así como su empoderamiento en la toma de decisiones respecto a la anticoncepción y otros aspectos relacionados con su salud sexual y reproductiva.

Esta ley también recoge las formas de violencia existentes en el ámbito de la salud sexual y reproductiva de las mujeres. Así, considera violencia machista contra las mujeres la violencia obstétrica, la vulneración de los derechos sexuales y reproductivos, así como cualquier otra forma de violencia que lesione o sea susceptible de lesionar la dignidad, la integridad o la libertad de las mujeres y niñas. Además, garantiza un enfoque de género y de derechos humanos en el trabajo a favor de la igualdad.

Al margen de la legalidad vigente, el Departamento de Salud garantiza una atención personal para facilitar protección específica a personas mayores, niñas, adolescentes, personas con alguna discapacidad, personas LGTBIQ+, minorías, personas migrantes, personas privadas de libertad. Asimismo, impulsa programas de información y educación para la salud sexual, basados en la igualdad de género y en el respeto a la diversidad sexual.

Por su parte, el Departamento de Educación, en su Plan de Coeducación, prevé la educación sexual como salud y desarrollo personal en todos los estamentos del ámbito educativo.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA PARTIDAS DESTINADAS A FINANCIAR LA FORMACIÓN DE PERSONAS QUE TRABAJAN EN LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS

